

**–eLAKO ETA –eN ATZIZKIAK IZENAK GOBERNATURIKO  
PERPAUS OSAGARRIETAN**

**1. Izenaren osagarri diren mendeko perpaus jokatuak**

Ondoko adibideetan letra etzanez idatzita dauden perpausak eskuinean duten izenaren osagarri dira (ik. EGLU V, 145-152. orr.):

1. a. Ekonomia gaizki doalako berriak ez gintuzke harritu behar
- b. Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zelako ustean
- c. Nork zabaldu du Maite eta Koldo banatu direlako zurrumurrua?
- d. Euskara Afrikatik datorrelako hipotesiak indarra galdu du azken urteotan
- e. Berriro elkar ikusiko dugun esperantza ez dut galdu
- f. Maite gaituzten seinale da egin diguten harrera beroa

Ondo berezi behar dira perpaus osagarri horiek eta perpaus erlatiboak. Biak dira izenaren lagun, baina ez modu berean. Konpara, esate baterako, 2a osagarria eta 2b erlatiboa:

2. a. *Gauzak hobetuko diren* esperantzak aurrera egiteko indarra ematen digu
- b. *Mende berriak piztu duen* esperantzak aurrera egiteko indarra ematen digu

Erlatiboaren barnean bada osagai bat nahitaez hutsik egon behar duena eta izen ardatzaren erreferentzia bera duena. Izen hori, nolabait esan, perpaus bietan dago, nagusian eta erlatiboan, azken honetan “isilduta” badago ere. Goiko 2b adibidean, esate baterako, honako bi perpaus hauek ditugu:

[Mende berriak *esperantza*<sub>i</sub> piztu du] [*esperantzak*<sub>i</sub> aurrera egiteko indarra ematen digu]

Erlatibo egitean, “isildu” egiten da lehenaren izena:

[Mende berriak  $\emptyset$ <sub>i</sub> piztu du *eN*] *esperantzak*<sub>i</sub> aurrera egiteko indarra ematen digu.

Osagarriaren barnean, berriz, ez dago lekurik perpaus nagusiko izenarentzat. Hau perpaus nagusian baizik ez dago. Goiko 2a adibidean, esate baterako, *Gauzak hobetuko dira* da perpaus osagarria eta *esperantza* izenak ez du hor lekurik:

[*Gauzak hobetuko dira eN*] *esperantzak* aurrera egiteko indarra ematen digu.

Bigarren alde bat ere bada. Erlatiboak edozein izen izan dezake ardatz, esandako erreferentzia kidesuna gordez gero:

- Etxe horretan bizi den *gizona*...
  - Erosi dugun *autoa*...
  - Idatzi duzun *gutuna*...
  - Bota dizuten *harria*...
- etab.

Perpaus osagarria gobernatzen duten izenak, berriz, horrelako konplementazioa eskatu edo aukeratzeko dutenak baizik ez dira: *aitzakia, albiste, berri, damu, esperantza, froga, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurru*... “Zeren” gisako osagarria eskatzen duten izenak dira horiek: *zeren esperantza, zeren ustea* etab.

## 2. Izenaren osagarri diren perpaus jokatuok hartzen dituzten atzizkiak

2.1. Literatur tradizioaren lekukotasunak erakusten duenez, *-eLAKO* eta *-eN* dira horrelako perpaus osagarriek eskuarki eraman ohi dituzten atzizkiak.

• *-eLAKO* atzizkia euskalki guztietan erabili izan da beti eta horrela erabiltzen da gaur egun ere. Hona adibide batzuk, erakusgarri gisa ekarriak (letra etzana gurea da):

3. a. Maite zaitu arek; baña *zuretzako laingoa eztalako* usteak ozten du (T. Agirre, *Uztaro*, 301).
- b. Egun gitxiren epean *aita txit gaizki zegoalako* berria izan zuan (F. I. Lardizabal, *Testamentu Zarr. Berr. condaira*, 61).
- c. (...) herriko etxeari buruz joan zen agudo, *berantegi helduko zelako* beldurrareki (J. Barbier, *Supazter chokoan*, 39).
- d. Urtengo dozu *sartu zinialako* damubaz (J. A. Moguel, *Peru Abarca*, 116).
- e. Eta hortakotz igorriak izatu ziren, *tokirik etzelako* aitzakian, etxe batetik bertzera (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitcea*, 11).
- f. (...) ixuri zituen negarrak *bere borondatea txit sendo eta eragillea zalako* señaletan agiri eta segurua ziran (G. Arrue, *Mayatceco illa*, 105).
- g. Badugu or barruan *ordena baten azpian garelako* sentimendua (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 163).
- h. *Gauetz zurekin biltzen naizelako* susmoa artu dute etxean (Y. Etxaide, *Joanak joan*, 75).

• *-eN* atzizkiaren erabilera mendebaldeko euskalkietakoa da, bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa batik bat, berriagoa eta maiztasun murriztagoa duena:

4. a. *Etsiko dun* ustea badu berak ere (Orixe, *Euskaldunak*, 133).
- b. Olantxe joan jakoezen orduak, *zerbait artuko eben* itxaropenez beterik (D. Aguirre, *Kresala*, 142).
- c. Irakiten edo maskulloak botatzen asten bada, *karea duen* señaletan da (A. Iturriaga, *Diálogos*, 51).

2.2. *-eLAREN*, *-eNEKO* eta *-eNAREN* atzizkiek, berriz, lekukotasun urria eta, oro har, aski berria dute.

• *-eLAREN* atzizkia gutxi-gutxi agertzen da, autore baten edo besteren testuetan baizik ez, eta ez da zuzena.

• *-eNEKO* atzizkiak ere lekukotasun urri-urria du horrelako perpausetan eta zalantzarazkoa da honen zuzentasuna ere:

5. (*Jesus*) *etxean zegoeneko* berria zabaldu zen (*Elizen arteko Biblia*, Mk 2, 1).

[Leku-denbora adierazten duten erlatiboetan ageri da inoiz atzizki hori: *sortu zeneko eguna, erori zeneko lekua...* Horiek, ordea, esan bezala, erlatiboak dira, ez osagarriak (ik. *EGLU V*, 196. or.)].

• *-eNAREN* atzizkia ere gutxi erabili izan da perpaus osagarriotan, azken aldiaren lehen baino usua agertzen hasi bada ere. Lekuko zaharragoetan agerpen bat edo beste badu, bizkaierazko testuetan batik bat, baina agerpen bakanak dira.

6. a. Eta seña[c] ematen ezpaditu *bizi denaren* señaletan, zer egin? (*Busturiko dotrina*, 53).
- b. *Dirutsua danaren* zantzuak badakuskigu (R. M. Azkue, *Ardi galdua*, 24).
- c. Oi baino goizago bildu giñan goiz batean, *Delo'tik itsasontzia itzulia zanaren* berri entzun baidenuen aurreguneko arratsaldez (J. Zaitegi, *Platon'eneko atarian*, 105).

[Gutziz ohikoa da, noski, atzizki honek perpaus erlatiboetan duen erabilera: *zurekin etorri denaren itxura*, hau da, *zurekin etorri den pertsonaren itxura*. Horrelakoak, ordea, berriro esan, erlatiboak dira, ez osagarriak].

Hizkuntzan maiztasun eta pisu handiegirik ez duten perpaus osagarri hauei zein atzizki dagokien jakin ez eta nolabait egindako perpausak dira horrelako gehienak, azken hogeit-hogeita hamar urteotan gero eta usuago entzun eta irakurtzen direnak, baina tradizioan lekukotasun sendorik ez dutenak.

### ARAUA

Hortaz, literatur tradizioaren lekukotasuna ikusita, hau da Euskaltzaindiaren erabakia izenak gobernatzen dituen perpaus osagarri jokatueta erabili beharreko atzizkiez:

• *Aitzakia, albiste, berri, damu, esperantza, froga, hitz, iritzi, irudipen, itxaropen, itxura, kezka, konfiantza, kontu, marka, promesa, seinale, sentimendu, susmo, uste, zantzu, zurrumurruru...* eta horrelako izenek gobernatzen dituzten perpaus osagarrietan *-eLAKO* eta *-eN* atzizkiak erabiliko dira euskara batuan:

- *Ekonomia gaizki doalako* berriak ez gintuzke harritu behar
- *Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zelako* ustean
- *Nork zabaldu du Maite eta Koldo banatu direlako* zurrumurrua?
- *Euskara Afrikatik datorrelako* hipotesiak indarra galdu du azken urteotan
- *Berriro elkar ikusiko dugulako* esperantza ez dut galdu
- *Maite gaituztelako* seinale da egin diguten harrera beroa
- *Berriro elkar ikusiko dugun* esperantza ez dut galdu
- *Maite gaituzten* seinale da egin diguten harrera beroa.

• Baina euskara batuan ez da egoki perpaus osagarrietan *-eLAREN*, *-eNEKO* edo *-eNAREN* atzizkiak erabiltzea, ez baitute literatur tradizioan aski den adinako lekukotasunik. Beraz, gisa honetako perpausak ez dute lekurik euskara batuan:

- *\*Ekonomia gaizki doalaren* berriak ez gintuzke harritu behar
- *\*Ameriketara joan zen, han hobeto biziko zeneko* ustean
- *\*Maite gaituztenaren* seinale da egin diguten harrera beroa.

(Euskaltzaindiak, Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean, onartua)